

# GABON KANTAK

IZENBURUAREN GAINean KLIK EGIN ABESTIAK ENTZUTEKO  
CLIC EN LOS TÍTULOS PARA ESCUCHAR LAS CANCIONES

## OLENTZERO ETA ASTOA

Olentzero ta astoa basora joan dira,  
bidean galdu eta haserretu dira (x2)

Olentzerok astoai belarritik tira  
astoak Olentzeroi praketatik tira (x2)  
Tira ta tira elkarrenak dira  
tira ta tira konponduko dira.

Olentzero ta astoa basora joan dira,  
bidean galdu eta haserretu dira (x2)

Olentzerok astoai buztanetik tira  
astoak Olentzeroi gerrikotik tira (x2)  
Tira ta tira elkarrenak dira  
tira ta tira konponduko dira.

Olentzerok astoai belarritik tira  
astoak Olentzeroi praketatik tira.  
Olentzerok astoai buztanetik tira  
astoak Olentzeroi gerrikotik tira.  
Tira ta tira elkarrenak dira  
tira ta tira konponduko dira.

Olentzero ta astoa basora joan dira,  
bidean galdu eta haserretu dira x3

## URTARO ZURIKO EMAKUMEA

Urtaro zuriko emakumea  
Eskamentuko artzain andrea  
Euskaldun guztiok dugu begiko  
Maiteko dugu beti-betiko! x2

Mari Mari Domingi goxoena  
Mari Mari Domingi ausartena  
Mari Mari Domingi eztiena  
Mari Mari Domingi azkarrena

Beldur uxalari gau ilunetan  
Ondoan dela dirudi benetan  
Urtaro berde, urdin ta marroian  
Mari Domingi nahi dut ondoan!  
Mari Domingi badut ondoan!

Mari Mari Domingi goxoena  
Mari Mari Domingi ausartena  
Mari Mari Domingi eztiena  
Mari Mari Domingi azkarrena

Urtaro zuriko emakumea  
Eskamentuko artzain andrea  
Euskaldun guztiok dugu begiko  
Maiteko dugu beti-betiko! x2

## OPARIRIK POLITENA

Oparirik politena zu zara,  
ni zurekin, zu nirekin, egotea.

Badatoz urtero bezala,  
Badatoz menditik behera.  
Badatoz urtero bezala,  
Mari Domingi, Olentzero eta  
astotxo.

Oparirik politena zu zara,  
ni zurekin, zu nirekin, egotea.

Daukanak ez daukanari,  
dekonak ez dekonari,  
horrela ikasi nuen nik,  
horrela irakasten dizut zuri.

## HATOR HATOR

Hator, hator mutil etxera,  
gaztainak zimelak jatera,  
Gabon gaba ospatutzeko  
aitaren ta amaren ondoan.

Ikusiko duk aita barrezka,  
amaren poz atseginez.  
Eragiok mutil aurreko danbolinari,  
gaztainak erre artian,  
gaztainak erre artian,  
txipli, txapla pun.  
Gabon gaba pozik igaro daigun.



escola berria

INDAUTXUKO ESKOLA AFA - IGE





## OLENTZERO

**Olentzero, Olentzero, gaur berandutu ezkero  
Olentzero, Olentzero, ikusi nahi zaitut gero**

Gaur denok elkartu gara	Zer ote, han goitik
Muxu ta besarkada	Datorren gona gorri
Goiz-goizetik etorri gara	Ezin beste inor izan
Den-denok badezpada	Gure Mari Domingi
Astoak ikusi dutela	Ilusioz beteta
Mendian honezkero	Agur esan eskuekin
Zure zain gaude denok	Hau zortea gurea
Ez berandutu Olentzero	Ospatzea elkarrekin

Olentzero, Olentzero, gaur berandutu ezkero  
Olentzero, Olentzero, ikusi nahi zaitut gero  
Olentzero, Olentzero, gaur berandutu ezkero  
Olentzero, Olentzero, sudur-gorri, muxu-bero  
Sudur-gorri, muxu-bero.

## ELURRA MARA-MARA

<b>Elurra mara-mara, elurra mara-mara</b>	Lehiotik begiratu
<b>Txof, txof, txof, txof txof, txof, txof</b>	Amona dabil dantzan
Lehiotik begiratu	Elur panpin handi bat
Dena txuri-txuria	Dena txuri-txuri
Lehiotik begiratu	Lehiotik begiratu
Elur panpin handi bat	Olentzero badator
Dena txuri-txuria	Amona dabil dantzan
	Elur panpin handi bat
	Dena txuri-txuria

## OLE OLENTZERO

Ole-Olentzero X10  
  
Olentzero joan zaigu  
Mendira lanera  
Intentzioarekin ikatz egitera x2

Horra, horra  
Horra, horra  
Gure Olentzero  
Pipa hortzeten duela  
Eserita dago x2

### Ole-Olentzero X10

Olentzero, buru handia  
Entendimentuz jantzia  
Bart arratsean  
Edan omen du  
Hamar orruko zahagia x2

Horra, horra  
Horra, horra  
Gure Olentzero  
Kapoiaik ere baitu  
Arrautzatxoakin  
Horra, horra  
Horra, horra  
Gure Olentzero  
Bihar merendatzeko  
Botila ardoakin  
  
Ole-Olentzero...

## TIBIRUN BONBON

Tibirun bonbon  
Iritsi da  
Tibirun bonbon  
Eguberria  
  
Amalurrak lotan jarraitzen du,  
neguan gaude eta  
Su eder bat egingo dugu  
subilaroaren laguntzaz

Gaztai erreak txipli-txapla-pun, neguan gaude eta  
Esku hotz hauek berotzeko  
guztiak jango ditugu

Mara-mara ariko du elurra,  
neguan gaude eta  
Lera hartu eta aldapak  
zitzuan jaitsiko ditugu

Mari domingi ta olentzero,  
neguan gaude eta  
Besarkada bana bientzat,  
oparotasuna denontzat!

